


DATUAK: • **Luzera:** 6,5 km • **Desnibela:** 70 m • **Zailtasuna:** Baxua. Pista • **Abiapuntua:** Artikutzako auzoa



DESKRIBAPENA:

Ibilbide hau Artikutza auzoan (315 m) hasten denez, hara autoz iristeko baimena eskatu behar da Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuan. (Donostiatik 010 eta gainontzeko herrietatik 943 481000)

Auzoan autoa utzi eta zubia zeharkatuz, ezkererantz joko dugu, ermitarantz doan pista hartuz. Porlanezko bidean maldan goiti egin eta gero, bidegurutze batera iritsiko gara. Eskuinaldera joz gero, aterpetxera iritsiko ginatke, eta aurrerantz doan belarrezko bidexkatik, presara. Guk ezkererantz doan pista hartuko dugu, metalezko ataka pasa eta pistan aurrera jarraitu.

Ez dugu urtegia inguratzen duen pista zabalena utziko inoiz (365 m). Urtegiaren atzealdean -ibilbidearen erdia-edo egina izango dugu-, bi zubi pasatuko ditugu. Beste metalezko langa bat zeharkatu eta auzora jaisteko, pistari jarraitu edo eskuinaldean dagoen bidezidorretik presarantz egin dezakegu, bista eder batzuk izan eta handik behera herrira jaisteko modua izateko.

Artikutza auzoa atsedean hartzeko leku lasaia da. Komun publikoak, edari makinak eta norberak eramandako jana jateko prestatutako etxe bat ere badago: Ostatu zahar.

